

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Larrialdi-misioetako helikopteroen mugaz gaindiko jardunaldia egingo da Iruñean

HeliNET proiektuaren bigarren jardunaldia martxoaren 21ean izanen da Planetarioan

Osteguna, 2019.eko martxoak 14

“Larrialdi-misioetako helikopteroak” izenburuean datorren martxoaren 21ean Iruñean [POCTEFA](#) [HeliNET](#) Europako proiektuaren bigarren Mugaz gaindiko Jardunaldia egingen da. Proiektuak mugaz gaindiko heliazalaren sarea garatu eta Nafarroa, Akitania zein Euskadiko larrialdietan helikopteroz arreta ematea bultzatzea du xede. HeliNET partzuergo Nafarroako Babes Zibilak, Nasuvinsa, Osakidetzako Larrialdiak, eta Pirinio Atlantikoetako SAMU 64Ak osatzen dute eta larrialdien zein arriskuen kudeaketan babes zibilerako elkarlana sustatu eta horretarako beharrezkoak diren amankomuneko protokoloak eta gidak garatuko ditu.



Iruñeko Planetarioan egingen den “[Larrialdi-misioetako helikopteroak](#)” [jardunaldian](#), HeliNET proiektua aurkeztuko da eta honako gaiak launduko dira: osasun arreta helikopteroan; helikopteroak suteen itzaltzean; aire arautegia eta dronak; helikopteroen misioak erreskate eta salbamendu egoeretan. Jada ehun pertsonak eman dute izena oraindik ere [izen-ematea](#) zabalik duen kongresuan.

Jardunaldia, Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barnea eta Justizia Departamentuko kontseilaria, María José Beaumontek zabalduko du. Helikopteroako osasun arretaren arloan Osakidetzak, Kataluinako Osasun Larrialdi Sistemako eta SAMU 64Ako adituek hartuko dute parte. Nafarroako Suhiltzaileak, Aragoiko Baso Suteen Kudeaketarako taldeak eta Kataluinako suhiltzaileek helikopteroekin suteak itzaltzeari buruz arituko dira. Gainera, Heilgráfic, Foruzaingoa eta AENako kideek aireko arautegia eta dronen inguruan mintzatuko dira.

Arratsaldean erreskate eta salbamendu egoeretan helikopteroen erabilera izango dute hizpide, eta bertan Nafarroako Suhiltzaileetako GRT adituak, Kantabriako Larrialdi Zerbitzuak, Asturiaseko Larrialdi Zerbitzuak eta Ertzaintzak hartuko du parte.

HeliNET proiektuari buruz

HeliNET Proiektuak [lehendabiziko jardunaldia](#) Donostian egin zuen iragan udazkenean eta hirugarrena Baionan ospatuko da azaroaren

21ean, eta larrialdiei aurre nola hartu eta tokiko agenteen erantzuna nola prestatu, zein arrisku eta hondamendi naturalen aurrean zein erantzun eman aztertu eta hobetzeko beharrak jasoko dituzte.

Horretarako, Osakidetzako Larrialdiek, Nafarroako Babes Zibilak, Nasuvinsa eta Samu64 A arreta, larrialdi zein sorospen helikopteroek lur hartu dezaketen eremuak hobetzeko lanean ari dira, eta bestetik, partzuergoa osatzen duten lurraldeen arteko erantzun koordinatua eta beteratua antolatu, frogatu eta planifikatzen.

Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF), Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) Interreg Programaren baitan %65ean diruz-lagundutako proiektua da. POCTEFAk estatu espainari eta frantsesaren eta Andorrako Printzerriaren arteko gizarte eta ekonomia integrazioa sustatzea du helburu. Laguntza mugaz gaindiko ekonomia, gizarte eta ingurumenarekin lotutako ekintzak garatzera bideratzen da, lurralde garapen jasangarrirako amankomuneko estrategiak erabiliz.